

# GUaiXE.net



Nazabal  
Nafarroako  
txapelketan



Kirolak >> 13

Irurtzungo Elikagai Bankuaren  
aldeko elkartasun jaialdia.  
Igandean pilota partidak ikusteko  
janariarekin ordaindu beharko da



Kirolak >> 11



Asteartean makina bat sakandarrek babesa azaldu zioten Gorka Ovejero Ganboari eta AHTko lanak gelditzeko eskatu zuten.

## Tartalaria epaitegira >> 3

Elkarlanean  
ariko dira  
Nafarroa  
Bizirik, Udala  
eta Gurelur >> 6

Onddo astea  
Altsasun >> 9

Bost poeta  
Uharteko  
errezitaldian >> 15

Kalakan  
Irurtzunen >> 15

Altsasuko  
Udala  
sinboloen  
inposizioaren  
kontra

Espainiako bandera  
jarri beharko du >> 8

Arartekoak Mank-en  
aisialdi programetan  
hizkuntza probak  
egitea iradoki du

Mank-ek etzidamu aztertuko du

>> 5

Mikel Arregi  
gogoan izanen  
dute hil zutela  
34 urte bete  
direnean

Bihar manifestazioa  
Lakuntzan >> 7

**Basogintza Sakanan**  
liburua

**ESKANTZA BEREZIA**

12€

Bazkideek  
10€

Foru plaza 23, Altsasu

**Sakana**  
optika

**ESKANTZA BEREZIA**  
VARILUX  
betaurrekoen 2. alea  
OPARI

optikasakana@gmail.com  
948 563 124 · Iortia Plaza 11 · ALTSASU



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Luken Zelaia**  
ZORIONAK Luken!! 6 urte bete dituzu eta Argentinan ospatu duzue!! Hau zortea, txiki!! Opariak prest ditugu. Muxuak denon partez eta bereziki Mikelen partetik.



**Iker Mintegi Claver**  
Zorionak etxeko txirindulari eta korrikalariari. Txapel-dun!! Oso ondo pasa zure eguna. 11 muxu etxeko-en partez.



ZORIONAK eskolako umerik langileenari. Ondo pasa Mc Gyver!!



**Iradi Larrion Artieda**  
ONGI ETORRI Etxarriko familiaren partez!!



**Martina Senar**  
ZORIONAK AMALA!! Zure 82 urtebetetzean prestatu bazkari goxoa. Mila muxu gure partetik Sarai, Nerea, Xabier, Anne eta Irati.



**Ricardo ZORIONAK Rikar-txu**!! Oso egun ona pasa zure urtebetetzean!!! Muxu handi bat!!!!!!!

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

## azaroak

# 15-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**Egurre + Bortitz + DJ Jo ta txo.**  
Azaroaren 16an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

**Kalakan.** Azaroaren 17an, igandean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean.

**Iruñeko orfeoiko gazte abesbatza.**  
Azaroaren 17an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan.

**Santa Zezilia eguneko kontzertua.**  
Azaroaren 20an, asteazkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Udal Musika** eskolako ikasleak.

### Dantza

**Arte-an.** Azaroaren 16an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Dantzaz konpainia.**

### Antzerkia

**Pottola.** Azaroaren 15ean, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Txalo taldea.**

### Magia

**La hora de las cartas.** Azaroaren 16an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Lurrazpi tabernan. **Hodei magoa.**

### Ipuin kontalaria

**Mundu baten mila mundu.** Azaroaren 21ean, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Zoila Berastegi.** 3 urtetik gorako haurrendako.

### Proiektzioa

**Proiektzioa.** Azaroaren 17an, domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Zinema

**Yo tambien.** Azaroaren 15ean, ostiralean, 21:45ean, ondoren foruma, eta azaroaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**MUD.** Azaroaren 15ean, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 17an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Aviones.** Azaroaren 17an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Solo mia.** Azaroaren 21ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Feministak+Bilgune Feminista.**

### Txirindula irteerak

**Lareoko urtegia.** Azaroaren 17an,

domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Burundako mendi bizikleta taldea.** 55 km.

### Mendi irteera

**Valmanera-San Millan.** Azaroaren 17an, igandean, 6:30ean Olaztitik abiatuko da herriz herri pasatzeko. **Sakanako Mendizaleak.**

**Arangoiti.** Azaroaren 17an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak.

**Nerbioi ibaiko iturburua.** Azaroaren 17an, igandean. **Sakanako ikastolen mendi taldeak.**



### Erakusketak

**Arte dekoratzaileak.** Azaroaren 29ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta, domeketan, 19:00etatik

21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren tailerra.**

**Ferietako argazki bilduma.** Azaroaren 18ra arte, arratsaldean, Gure Etxea eraikinean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Literatura

**VIII. poesia errezitaldia.** Azaroaren 16an, larunbatean, 17:30ean Uhart Arakilgo Donibane jubilatua elkartearen. **Poetak: Mercedes Viñuela, Alfonso Muro, Tomas Hierro, Blanca Arrizabalaga eta Jose Luis Abad.** **Gitarra jotzailea: Raul Lopez.**

### Tailerrak

**Makillajea.** Azaroaren 16an, larunbatean, 18:00etan Lizarragako eskolan. **Gozamenez.**

**Es que... gaztelera ezagutu ginen.** Azaroaren 17an, domekan, 10:00etatik 14:00etara Bakaikuko udaletxean. **Emailerak: Gemma Sangines.** **Bitartean ludoteka zerbitzua izanen da.** **Izena emateko: bakaikukoudala@gmail.com.**

### Bestelakoak

**Ziber-lehiaketa.** Azaroaren 15ean, ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Ospa herri batzarra.** Azaroaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Konposta hobetzeko saio praktikoa.** Azaroaren 16an, larunbatean, 10:30ean Etxarri Aranazko estalopean. **Emailerak: Idoia Artieda eta Bixente Artieda.** **Aurretik udaletxean izena eman.**

**Mus txapelketa.** Azaroaren 16an, larunbatean, 16:30ean Etxarri Aranazko Udaberri elkartearen. **Izen ematea ordu erdi lehenago; 20 euro bikoteko.**

**Pankartak egiteko tailerra.** Azaroaren 19an, asteartean, 19:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **EHE. Euskaraz bizitzeari zigorrak ez!**

**Aralar mendiko Kudeaketa Planaren zirraborroaren aurkezpena.** Azaroaren 21ean, ostegunean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean.

**Informazio triki-poteoa.** Azaroaren 21ean, ostegunean, 19:30ean Altsasun. **EHE. Euskaraz bizitzeari zigorrak ez!**

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataforma.** Azaroaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 15ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Egiaren bidean, askatasuna amets. Mikel gogoan!** Azaroaren 16an, larunbatean, 12:30ean Lakuntzako plazatik abiatuta. **Ondoren ekitaldia.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Azaroaren 18an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Piztu irratia!

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
Albisteak, kirolak, Joxe Aldasoro (Egurre), Blanca Arrizabalaga (Hitzordu poetikoa)...

Esataria: *Maidier*



## SAKANA

# Tartalariak astelehenean epaituko dituzte

Barcinari tarta botatzea leporatuta 9 urteko espetxe zigorra eskatzen dute Gorka Ovejero Ganboarendako

**Bihar, 17:00etan, Iruñeko Antoniuttitik manifestazioa: AHTa zentzugabekeria da, eta 60km asko gehiago. Gelditu Orain!**

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) "inposaketaren" kontra protesta gisa Mugitu! Mugimenduko (M!M) kideek Yolanda Barcina Angulo Nafarroako presidenteari tartak bota zizkioten 2011ko lastailaren 27an Okzitaniako Tolosan. Gertaera hargatik lau pertsona epaituko dituzte astelehenean Espainiako Auzitegi Nazionalan.

## Kontzentrazioa



Asteartean Euskal Herriko hainbat herritan mobilizazioak egin ziren tartalariei elkartasuna adierazi eta AHTko lanak gelditzeko eskatuz. Sakanan, Arruazun egin zen elkarretaratzea. 70 bat pertsona bildu ziren. Haien artean zeuden herriko hautetsia, baita Bilduko alkate ugari ere. Pello Betelu Ganboa alkateak tartalariekiko elkartasuna adierazi zien udalaren izenean. Beteluk gogora ekarri zuen auzia Frantziara artxibatua zegoela eta tartalariendako zigor eskaerak salatu zituen. Joxi Bakaikoa Etxarriko alkateak gaineratu zuen egoera erraza ez den arren erantzuna ematen ohituta gaudela.

Haien artean Gorka Ovejero Ganboa arbazuarra dago. Agintean aurkako atentatuaren zuzeneko egile izatea egotzi dio fiskaltzak eta 5

urte eta 2.700 euroko isuna (edo 9 hilabete gehiago espetxean) eskatzen dizkio; Barcinaren akusazio partikularrak, berriz, Arruazuko zinegotzi karguaz baliatuz elakoan, 9 urte eta 5.400 urteko isuna (edo urte eta erdi gehiago kartzelan). Auzipetuek Auzitegi Gorenean helegiteak aurkeztuak dituzte. Okzitaniangertatuzenez, tartalariek Frantziako justiziak epaitu beharko litzateke eta isun ekonomiko bat jasokolukete. Baina helegiteak ebazti aurretik epaituko dituzte.

M!Mtik eskatutako zigorren larritasuna eta neurrigabetasuna salatu dituzte, "mendebaldeko inongo herritan parerik ez dutenak". Prozesua artxibatzea eta AHTko lanak berehala gelditzea eskatu dute. Bestalde, Mugituk deituta, astelehenean auzitegiaren San Fernando de Hanarresgo egoitzaren ondoan elkarretaratzea egingen da 9:15ean. 20:00etan, berriz, hitzordua Madrilgo puerta del Sol-en dago jarrita, kontzentrazioa eta tarta jaurtiketa egiteko.

## Manifestazioa

AHT Gelditu! plataformak deitua manifestazioa. Nafarroan AHT-ren egitasmoa errefusatu eta gelditzeko eskatuko da. Aldi berean, astelehenean epaituko dituzten AHT-ren lau aurkarien kontra egindako kartzela zigor eskaerak salatuko dira, desobediencia delitua ez dela nabarmenduz. Manifestazioaren deitzaileek azpiegitura horren kontra arrazoi ekonomiko (krisia, langabezia, murrizketak), ekologiko (ingurumen kalte galantak), politikoak (ez die jendartearen benetako premiei erantzuten eta ez da eztabaida sozial irekirik egin) eta sen onean oinarritutakoak (soilik 60 km-ko korridorea eta ingurumenari eragindako kalteen txostena iraungita) daudela adierazi dute, horregatik, AHT eskandalu itzela da". Horren harira, lanak gelditzea eskatuko da bihar.

## Gelditzeko eskaera epaitegian

Sustrai Erakuntza fundazioak jakinarazi duenez, Nafarroan hasiak dauden AHTko lanak kaltetuz gelditzeko eskatu du Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusian. Lanek Ingurumen Inpaktu Adierazpena iraungita izan arren, Nafarroako Gobernuak haiekin aurrera segitzen duelako eta heldu den urteko aurrekontuan diru saila aurreikusita dagoelako jo du fundazioak, atzera ere, epaitegira.

## gertutik >>

### Gorka Ovejero Ganboa

Mugitu! Mugimenduko kidea

#### Zertan da Nafarroan AHTren egoera?

Lehendik guk salatzen genituen ga-beziak eta proiektuaren zentzugabekeria, krisiak are gehiago nabarmendu ditu. Sustapen Ministerioak erabaki du Nafarroan Castejon eta Arrizabalaga artean 60 km-ko halako pista erraldoi bat egitea. Trenak gelditu egin beharko du azele-ratzen hasten denerako.

#### Eta beste tarteen?

Arrizabalagatik Iruñera eta Euskal Autonomia Erkidegorako (EAE) lotura eta Castejondik Zaragorarako lotura egiteko hirugarren erraila jarriko dute. Hau da, egungo trenbideari beste burdin ilara bat gehituko zaio, barruan, ezkerrean edo eskuinean. Europako

trenen zabalerara egokitu ahal izateko da.

#### Sakanan barna Nafarroa eta EAE lotu nahi dira. Zertan da?

Gaur egun informazio ikerketa ere egin gabe dago. Krisia dela eta, Gasteiz eta Bilboko obrak ez egitea erabaki dute. Trenbide zaharretatik sartuko dira. Horiekin batera, hiri-gintza "pelotazoak" aurreikusiak zeuden. Baina baztertu dituzte. Astigarragatik Hendaiara hirugarren erraila jarriko dute. Eta gauza bera Gasteiztik Burgosera.

#### Zein da alde baten eta bestearen artean?

Hirugarren erraila jartzea km-ko duen kostua bi milioi eurokoa da. EAEko AHTko km bakoitzak 25



milioi euroko aurrekontua du. Bi beharrez 25 gastatzen ari dira hain lurralde txiki batean.

#### Gelditu beharreko proiektutzat jotzen duzue.

Bai. Ingurumen eta ekologia aldetik AHT astakeria da. Mugikortasuna ez du laguntzen. Azken urteetan ekonomian indar handia jarri dugu, krisiarekin lotu dugu: jendea etxerik gabe gelditzen ari delako, bankuak erreskatatzen ari direlako... Halako mega-proiektuekin segitzea zentzugabekeria da.

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
**HARATEGI ETA URDAITEGIA**

tel. 948 576 067

**Satrustegi, Hiriberri, Ihabar eta Irañetan zuzeneko salmenta**

**Herriko plaza z/g LAKUNTZA**

## Non erabili

### XAGU

#### ALTSASU

% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

### LIBURUNDA

#### ALTSASU

%5eko deskontua papertegian eta irakurketarako liburuetan.

### GOIKO LOREDENDA

#### ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

### MARI JOSE ILEPAINDEGIA

#### ARBIZU

Manikura 18€.

### LORENA FRUTA DENDA

#### IRURTZUN

%10eko deskontua fruta tropikaletan.

### EROSKI BIDAIK

#### ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria

### MARIXELE

#### ETXARRI

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

### LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

#### URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

### LARKA

#### ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

### LASTAI GASOLINDEGIA

#### ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

## Hizkuntz integratzaile ereduak geure eskoletan

Epe laburrean, geure eskuindar politikariak hiruko-eleaniztasuna proposatzen ari dira egoki bezala derrigorrezko hezkuntza sistema osoan:

- Nafarroan, poliki-poliki eskola pribatuen bidez TIL bidea irekia dago. Hemen, nahiz eta euskara baztertzeko asmoekin proposatu, ez benetan ingeles

gehiago ikasteko, hainbat istilu ez dira izan;

- Valentzian istiluak izan dira. Baina, halako herrialde batean, politikari gehienak leporaino saltza denetan sartuak daudenez eta pribatizazio zorian, jendea ez dago hizkuntza istiluetan sartzeko gogo gehiegirekin;
- Balearretan, nahiz eta arraroa

izan, egundokoa mugitu da TIL eredu dela eta, derrigorrezko ikasketa plangintza hankaz gora jartzen delako, katalana baztertzaren delako eta gainera, ingeles gehiago ez delako ikasten;

Galizian, Baskongadetan, eta Katalunian, TIL eredu aipatua dago, baina herrialde hauetan, hizkuntz inposizioak bideratzea ez

da hain erraza. Hiru herrialde hauek, bere hizkuntz kidekoaren bideak jarraitu baitituzte hizkuntzaren ondoan trebetasunak zainduz, eta indar politikoez ere, beste era batetara jokatzen baitute.

Baina, hizkuntza ikasteko eta hezkuntza hobetzeko zer nolako hautabidea da TIL eredu? Nola ikasten dira hizkuntzak inolako

plangintzarik gabe, aurrekonturik gabe, irakasleriaren trebetasunik gabe eta errekurso eskasekin? Nork pentsa dezake hizkuntz arloan analfabeto hutsak diren politikariak (salbuespen gutxiarekin) logika batekin aipatzen dutela TIL bidea hezkuntza eta hizkuntzetan interesatuak ez badaude?

## hara zer dien

### Azaroaren 25a: Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna

Nazio Batuen Erakundearen esanetan, indarkeria hau giza eskubideen eta oinarriko askatasunen urraketarik larrienetarikoa da. Ez da berdinen arteko gatazka, ez eta emakumeen arazoa, baizik eta jendartearena oro har.

Indarkeria sexistak honen jatorria gizarte sistema patriarkalean eta arlo guztietan gauzatzen den genero berdintasun eza eta diskriminazio estrukturallean dago. Emakumeok, emakume izate

te hutsagatik pairatzen dugun indarkeriaz ari gara. Kalte fisiko, sexual, psikologiko nahiz ekonomikoak ekartzen edo ekar diezagukeena, bai eta hauen mehatxuak eta derrigorrezkoak edo gure askatasunaren murrizketak ere.

OMS-ek berriki aurkeztutako ikerketa batek dio "emakumeenganako indarkeria mundu mailako arazoa dela, epidemia gisa ko proportzioak dituena". Munduan 15 urtetik gorako

emakumeen % 35ak pairatu du noizbait bere bikotekidearen indarkeria fisikoa edo bikotekidea ez den norbaitek eragindako sexu-erasoa. Hau da, 920 milioi emakumek.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak dio aurten 42 emakume erailak izan direla Espainiar Estatuan indarkeria sexistak dela medio. Emakumeen elkarrekin arabera, 56. Iaz 52 izan ziren eta hauetatik 15ek

30 urte baino gutxiago zuten. Nafarroan, 2012an indarkeria matxista dela eta aurkeztutako 3 salaketatik 1 emakume gazte baten zen.

Argi dago indarkeria sexistak ez dela iraganeko gaitza, ez eta bereziki matxistak diren gizon batzuen portaera ulergaitza, gaitzesten dutena. Emakumeen aurkako indarkeriak hamaika aurpegi ditu, eta den-denak, gaur egun ere inda-

rrean dirauen berdintasun-ezaren isla dira.

Indarkeria sexistak ezabatzeko, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea. Guztion esku-hartze aktiboa eta indarkeriaren aurkako jarrera argia azaldu behar da. Horregatik, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren jarduerak guztietan parte hartzeri animatzen zaituztegu.

**Emakumeen Bilgunea**

## barrutik kanpora

### Lur-zoru klausulak kentzeko eskatu die Iratxek bankuei

Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak den Iratxek lur-zoru klausulak kentzeko eskatu die banku eta aurrezki kutxei, Legearen aurkakoak direla sinetsita. Afera onez onean konpontzeko gonbitea egin eta klausula horiek aplikatzen dituztenen aurka epaitegiara joko duela iragarri du elkarteak. Izan ere, banku eta aurrezki kutxek hipoteka mailegu hartzaile aunitz kaltetu dituzte Nafarroan klausula horiek kontratuetan ezarrita eta azken bi urteotan bezeroen aldekoak

izan dira epai gehienak.

Bezero gehienak ohartu ziren maileguaren interesa kalkulatzeko nagusiki erabiltzen den EURIBOR-ajaitsi egin zela, adostutako interesa baino gehiago ordaintzen zutela eta interesa muga batetik aurrera jaisten ez zela. Erran beharra dago hipoteka mailegu gehienak interes aldakorrek direla eta kontratu gehienetan Euriborra erabiltzen dela erreferentzia bezala.

Lur-zoru klausularen aplikazioaren ondorioz, bezeroak ban-

kuari gutxienezko interes bat ordaindu beharko dio, %2,50-ekoa adibidez, nahiz eta Euriborra %1 izan eta diferentziala %50koa. Izan ere, interes aldakorra finko bihurtzen da klausularen eraginez. Horren ondorioz, bezeroek 600 euro eta 5000 euro gehiago ordaindu behar dute urtero, batz bertzeko.

Zoru klausulen harira, Epaia Gorenak irailaren 9an gardentasunik gabe kontratuetan sartu diren klausulak legearen aurkakoak direla ebatzi zuen. Gai-

nera, entitate batek gardentasunez jokatu duen jakiteko irizpide batzuk ezarri zituen eta zenbait kasutan gardentasunik ez dagoela zehaztu ere bai. Hala nola, zoru klausula egonda ere Euriborra jaisten bada bezeroari maileguaren interesa jaitziko zaiola pentsaraztea, lur-zorua ezartzen duen klausularen garrantzia ez azpimarratzea, ordaindu beharreko interesa gaintetik mugatzen bada azpitik ere mugatu behar dela irudikatzea edo kontratua sinatu baino

lehen interesen gora-beheren arabera bezeroari zenbat ordainduko duen ez erakustea.

Azkenik, epaiak dio ez dela beharrezkoa aipatutako irregularitate guziak gertatzea zoru klausulak indargabetzeko. Hori dela eta, baliorik gabeko klausulak kontratutik ezabatu behar direla eta klausularen ondorioz kobratutako dirua itzuli behar dela defendatzen dugu.

**Iratxe**

# Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Barandalla  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza



**SAN MARTINEKO GOZOGILEAK:** Urtero moduan Erga Larreak elkarteak festetako gozogintza lehiaketa hartu zuen. Dozena erdi tarta aurkeztu ziren. Lehen saria Mi-

riam Rekaldek eskuratu zuen. Bigarrena Petri Legarrak eta hirugarrena Maite Garzia izan zen.

# sakanerria >>

>> **Altsasu**

## EHEko kideen etxeko espetxealdia prestatzen

Hilaren 23an eta 24an epaileak jarritako zigorra Gure Etxea eraikinean beteko dute Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragileko bi kidek. Haiei sostengua adierazteko eta Altsasun zein Euskal Herri osoan euskaraz bizi nahia ozen zabaltzeko egitaraua prestatu da. *Euskaraz bizitzeari zigorrik ez! Ezabatu eta euskaraz bizi* leloa du egitarauak. Itxialdiak irauten duen bi egunetan Gure Etxea eraikinean lo egi-



EHEko kideek heldu den asteko itxialdian parte hartzerantz deitu dute.

### Egitaraua

>> **Azaroak 19, asteartea**  
19:30etan Pankartak egiteko tailerra Gure Etxea eraikinean.

>> **Azaroak 21, osteguna**  
19:30etan Triki-poteo informatzailea.

>> **Azaroak 22, ostirala**  
19:00etan Elkarretaratzea.  
20:00etan Pintxo-potea Gure Etxea eraikinean.  
22:30etan *Izan egin eragin* dokumentalaren proiektzioa.  
00:00etan Itxialdiaren hasiera.

>> **Azaroak 23, larunbata**  
14:30etan Bertso bazkaria.  
18:30etan *Euskaraz bizitzeari zigorrik ez! Ezabatu eta euskaraz bizi!* manifestazioa.  
20:00etan Pintxo-potea.  
23:00etan Kinadaren kontzertua eta ondoren karaokea.

>> **Azaroak 24, igandea**  
12:00etan Komunikazio tailerra.  
17:00etan Hitzaldia: desobedientziatik intsumisiorantz: bide bat. Hizlaria: Eneko Garaialde.  
19:00etan Elkarretaratzea.  
00:00etan Itxialdiaren akabera.

teko gonbitea luzatu dute EHEtik. Altsasuko EHEko Itziar Claver eta Haizea Ramirez de Alda etxeko lokalizazio iraunkorrera eta isun ekonomikoa ordaintzearen

zigorra beteko dute horrela hurrengo asteburuan. Ezabatu eta Euskaraz Bizi dinamikaren baitan Foruzainek identifikatu ondotik jaso dute isun hori.

**SAKANA**

## Arartekoak Mank-en aisialdi programetan hizkuntza probak egitea iradoki du

**Astehenean bilduko da Euskara Batzordea Arartekoaren iradokizunak aztertzeko**

Olatzagutiko bi familiak Nafarroako Ararteko Francisco Javier Eneriz Olaetxearengana jo zuten. Kexu ziren aurreko bi urteetan Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako Larunblai programan haien alabek parte hartu zutelako baina ikasturte berrian ezin zutelako; B

ereduan ikasten ari direlako (bi gai ez beste guztiak euskaraz).

Enerizek kasua aztertu ondoren Mank-i bi iradokizun egin dizkio. Arartekoak dioenez, euskararen erabilera sustatzeko aisialdi programan parte hartzeko ezinbestekoa da euskarazko gutxieneko eza-gutza egokia izatea. Horregatik, Enerizek Mank-i iradoki dio hurrengo urteetarako interesatu guztiei euskara maila proba egitea,

euskara maila ziurtatzeko. Bere txostenean Arartekoak dio proba egiteak eragotziko lukeela hezkuntza ereduaren irizpidea erabiltzea, "berez ez da determinantea".

Arartekoak argudiatzen du hizkuntza ezagutza hainbat modutan jaso daitekeela, nahiz eta onartu, ohikoena, etxea eta Deredua direla. Probak bestelako onurak izan ditzakeela gaineratu du Enerizek: "une jakinetan, emai-



Iseka aisialdi programako parte-hartzaileetako batzuk. ARTXIBOA

tzen arabera, adinaren arabera-ko taldeak sortuz jarduera zehatzak antolatu daitezke euskararen erabilera sustatzeko irizpidea kontuan hartuta".

Bestetik, Arartekoak iradoki du

bi familien kexari erantzuna ematea, "baloratuz, aurreko bi urteetan parte hartu eta, bi gai ez beste guztiak, euskaraz ikasten dituztela, parte hartzeko nahikoa maila dutela".

>> **Bakaiku**



Bikoteen hizkuntza ohiturei erreparatzen diete haurrek. ERKUDEN RUIZ BARROSO.

## Bikotea euskaraz deskubritzeko

Hainbat bikotek hitzordu berezia dute domekarako. Aspaldi ezagutzen dute elkar. Baina etzi elkar ezagutzeko beste modu bat eta bikote harremana aberasteko aukera izanen dute. Euskara jakinda ere bikote harremana gaztelaniaz hasi zuten bikoteak elkartuko dira. Gemma Sangi-

nes unibertsitate irakaslearen gidaritzapean, bikote harreman horretan euskarak berezko beharko lukeen tokia berreskuratzeke aukera izanen dute. Tailerra Bakaikuko Udalak antolatu du, jakitun, gurasoen hizkuntza ohiturak seme-alabek bere egiten dituztela.

### Izen ematea

bakaikukoudala@gmail.com-epostaraidatzi behar da, eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar ditu. Azaroaren 17an, domekan, 10:00etatik 14:00etara izanen da ikastaroa. Ludoteka zerbitzua izanen da.

**Amaya**  
Okindegia-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua

Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185

- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

**ALTSASU** **OLAZTI** **ETXARRI**

948 468 755 948 461 660

## » Etxarri Aranatz

# Ennecoren proiektuan elkarlanean ariko dira Nafarroa Bizirik, Udala eta Gurelur

Talde ekologistak egindako salaketaren ondoren, aurreko ostegunean bildu ziren Enneco, haritzaren memoria proiektua sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazio-kideak eta Etxarri Aranatzko udaleko ordezkariak Gurelurrekoekin. Talde ekologistakoei hainbat uste zuzendu ondoren, hiru erakundeetako ordezkariak lankidetzaz esparrua sortzea erabaki zuten.

Hala, natura-baliabideak errespetatzen direla ziurtatzeko Gurelurrek proiektuaren jarraipena egingen du, beti ere, izan daitezkeen afekzioak txikitzeko. Elkarrekin ekologistaren proposamenari jarraituta, Etxarriko Udalak ingurumenari dagozkion hainbat neurri hartuko ditu aipatu afekzioak orekatzeko.

## Basora egokitutako proiektua

Bileran parte hartu dutenek konpromisoa hartu dute proiektuko moduluak jartzerakoan ingurumen inpaktua ahalik eta txikiena izateko, "proiektuak hango ingurumenaren orekari kalte egin ez diezaion".

Aldi berean, bai Nafarroa Bizirik fundazioak bai Etxarriko Udalak adierazi dute ez dutela onartuko, inolaz ere, bertako parajeari kalterik eragitea. Izan ere, "lan zorrotza egiten ari da basoaren eta proiektuaren arteko oreka gal ez dadin, bertako natur baliabideen eta paisaiaren balioa indartu behar baitira. Proiektua basoaren menpe egotea da asmoa, eta ez alde-rantziz". Horregatik, parkearen egitasmoan jaso dago egurrezko kaxeta batzuk jartzea, zuhaitz eta sastraken artean libre gelditzen diren espazioetara egokituta, zimendu beharrik ez dutenak.

## Urratsak

Enneco, haritzaren memoria hartuko duen Basopokale eta Danbolintxulo arteko parajea azalduen bazkalekua zen. Hura itxi eta abereei hara sartzea debekatu zitzaizkionetik sasiak janda zegoen. Aurreko egunetan boluntarioek egin dutena sasi horiek kentzea izan da, bestela ezinezkoa baitzen handik ibiltzea. 10 cm baino gehiagoko diametroa duten landareak mantendu dira, baita haritz landare txi-



Baso teknikari batek eta udaleko langile batek gainbegiratzen dituzte lanak.

kien eremuak, eta hainbat gorosti eta elorri ere.

Lan horiek Ingurumen Departamenduaren baimenarekin egin dira Lurgeroa enpresako ingeniari baten, udaleko langile baten eta boluntario talde zabal baten laguntzaz, auzolanean. Horiek despedituta inguruaren neurketa topografikoa egingen da, proiektua bertako baliabideetara eta orografiara

moldatzeko.

Behin eremua garbi dagoela, hara egokitutako proiektu proposamena egingen da eta Etxarri Aranatzko Udalak behin betiko onartuko du. Baina horren aurretik, udalak teknikari adituei eta ingurumenaren erreferentzia diren elkarteei oniritzia eskatuko die. Azkenik, proiektua jendaurrean aurkeztuko da Etxarri Aranatz.

## »

# Konposta hobetzeko saio praktikoa

Larunbatean, 10:30ean, udaletxeko estalopean

Etxarriar askok egin dute zabor organikoa konpostagailuetara botatzeko hautua. Baina kontua ez da konpostagailua zabaldu, gure zabor organikoa bota eta tapa ixtea. Komenigarria da pausu zehatz batzuk jarraitzea, konpostaren prozesua hobetzeko eta usain txarra eta halako arazoak ez sor-

tzeko. Horrela, Udalak konposta hobetzeko saio praktikoa antolatu du larunbaterako, 10:30ean, udaletxeko estalopean. Idoia Artiedak eta Bixente Artiedak gidatuko dute saioa. Saiora joan nahi dutenek udaletxean abisatu beharko dute (948 460 004 edo udala@etxarriaranatz.com).

Lehenik eta behin azalpen praktikoa emango dituzte: kon-



postagailuen funtzionamendua, arazoak identifikatuko dira eta konponbidea eman eta dauden zalantzak argituko dira. Eta, ondoren, ibilbidea antolatu dute, Larreñondo, Sagarmiñeta eta Kalamurtxeiko konpostagailuak nola dauden ikusteko. Organikoz betetako pertz marroiak beteak eramatea gomendatzen da, prozesua egiteko.



Eguraldiak laguntzen ez badu, 23an egingen da. etxarriaranatz.com kontsultatu web orrian.

## » Bakaiku

# Azaroa da gaztainak mozteko hilabetea

Udazkena da gaztainak hartzeko garaia. Garai batean Bakaikun Gaztaina mozte eguna ospatzen zuten. Familia bakoitzak hainbat gaztainondo zituen. Egun bat egokitzen zuten gaztainak hartzeko. Basotik abere guztiak ateratzen zituzten eta basoa zaintzen bi guarda jartzen zituzten. Bando baten bidez gaztaina biltzeko eguna izango zela esaten zuten, eta ezkilak jotzen zituztenean gaztainak hartzera joaten ziren. Garaiak aldatu dira eta gaur egun gaztainak ez dira lehen bezain beharrezkoak. Bakaikun, hala ere, 1960ko hamarkadan galdutako festa berreskuratu nahi dute eta larunbatean Gaztaina moz-

te eguna ospatu zuten.

Festa aldatuda. Dagoeneko gaztainondoak herriarenak dira eta askoz gutxiago daude. Gainera, Agustin Lopez de Zubiriak gaztaina bilketarekin hasi aurretik esan zuenez aurten ez dira gaztaina asko egon, lehorteak izan direlako. Dena dela, basotik ibiltzen ari zirela nahiko gaztaina aurkitu zituzten. Gehienak saboiak ziren, hau da, zaharrak. Beste hainbat ipurximurrak edo dagoeneko ximeldu direnak. Baina zortea izan zuten eta latxa-ren bat ere aurkitu zuten. Goiza amaitzeko bildutako gaztainak erreta jan zituzten Bakarrekoei elkarrekin.



Basoan gaztaina bila. ERKUDEN RUIZ BARROSO

## » Arbizu

## Mank-ek hondakin emateko deialdia egin du

Arbizuko hondakindegitik 3 tratamendu plantetara eramandituen enpresa kontratatu nahi du Sakanako Mankomunitateak: hiri hondakinak Tuterara, ontziak Azkoienara eta biohondakinak Mendigorriara. Lan horientatik urteko 189.590,96 euro ordaintzeko prest dago Mank. Interesatuek eskaintzak abenduraren 23ra arte aurkez ditzakete. Urte baterako emanen dira lanak eta gehienez ere hiru urte gehiagorako luza daitezke.

## » Olatzagutia

## Prezio murrizketa baso enkantean

Olatzagutiko Udalak gutunazal itxien bidezko enkante publikoan 2012ko Planari dagokion lote bat saldu nahi du. Altzania eta Basabeandauden Adarroz, Lapurdiko zulo, Iruerrika eta Zapardegi dermiotat dauden 2.260 pagokosaz dute lote hori 673 metro kubiko zur eta 4.878 metro kubiko egur egingen dutenak. PEFC ziurtagiridun zura da enkantean jarriko dena. Aurreko aldietsalduek ez denez, Olatzagutiko Udalak hasierako prezioari %20ko beherapena egingo dio: 83.035,2 (gehi %12ko BEZa).

Bestalde, Olatzagutiako Udalak 2011ko planari dagokion lote bat saldu dio Explotaciones Forestales Zubillaga Saralegui SL-ri. Horren truke 68.200 euro jasoko ditu udalak. 2012ko beste lote batengatik Batzen SL enpresak 51.501 euro emanen dizkio udalari.

## »

## Udalak kiroldegiko eta igerilekuko tabernen kudeaketa emanen du

Olatzagutiko Udalak eskaintza onenari emanen dio Erburua kiroldegiko taberna-jatetxearen eta igerilekuko tabernaren kudeaketa. Urte baterako emanen du kudeaketa eta, horregatik, 4.800 euro eskatzen ditu (BEZ kanpo). Kontratua urtero luzatu ahaliko da, gehienez 3 urte luzatuz. Eskerak hilaeren 30era arte aurkeztu daitezke udaletxean.

## » SAKANA

## Hartzekodunen konkurtsoa Nasipan

Eraikuntza enpresak borondatezko hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen aurreko astean. Eraikuntza arloko burbuila lehertzearen ondorioz lan eskaerak behera egin du. Nasipak joan den urte akaberan langileen %70 kaleratu zuen, 50 langiletik 15era pasaz. Azken hilabeteetan egoera ezin izan du bideratu eta horregatik aurkeztu du borondatezko hartzekodunen konkurtsoa.


## » Lakuntza

## 34 urte eta gero Mikel Arregi gogoan

**Guardia Zibilak kontrol batean tirokatutako zinegotzi lakuntzarraren aldeko manifestazioa izanen da, larunbatean, 12:30ean, Lakuntzan**

1979ko azaroaren 11n Guardia Zibilak Lakuntzako udalean Herri Batasunako zinegotzia zen Mikel Arregi lakuntzarra hil zuen Etxarri Aranatzan, 33 urte zituela. Arregi eta haren lagun batzuk Ziorditik bueltan ziren, Lakuntzako Pertza eguneko tripotak ordaintzetik. Etxarritik pasatzerakoan, Guardia Zibilak autoa tirokatu zuen eta zinegotzi gaztea hil egin zuen. Guardia Zibilaren esanetan, lakuntzarrek Etxarri zegoen kontrola saltatu zuten, baina lekukoek diotenez han ez zen kontrolik eta Guardia Zibilak zuzenean tirokatu zuen autoa.

Mikel Arregi Marin Lakuntzako zinegotzia zen, HBko militantea, Sakana Kooperatibako fundatzailetariko bat eta herriko zenbait kultur ekimenetan parte hartzailea. Lagun Artea futbol taldeko jokalarien. Guardia Zibilak tirokatu zutela jakin bezain pronto, erantzuna berehalakoa izan zen: batzarrak eta manifestaldiak egin ziren herri guztietan eta greba orokorra deitu



Mikel Arregiren oroigarria.

zen Euskal Herri osoan. Makina bat deialdi bortizki erreprimitu zituen Guardia Zibilak.

### Epaiaketa

Mikelen hilketan Nafarroako Parlamentuan tratatu zen eta baita Estatuko Senatuan ere. Handik egun gutxitara ikerketa batzorde bat antolatu zen. Lekukoek bertan adierazi zuten tirokatutako tokian ez zegoela inongo kontrolik. 1981ean tiroketan parte hartu zuten Guardia Zibilaren kontrako epaiaketa izan zen eta "zuhurtzia-

gabekeri soila" delitua egiteagatik kondenatu zituzten, 3 hilabetezko kartzela eta ordain sari sinboliko bat familiarendako.

### Egia eta aitortza

Hori da Mikel Arregi lagunak taldeak eskatzen duena, "egia, aitortza eta erreparazioa, Mikelen familiaria eta lagunei eta Euskal Herrian estatuaren biolentzia jasan duten herritar guztiei". Bakea da helburua, baina "Euskal Herrian, justizian, minguztien aitortzan, egian eta erreparazioan oinarritutako

### Manifestazioa

Egiaren bidean, astatasuna amets. Mikel gogoan! lelopean manifestazioa deitu dute Mikel Arregiren Lagunak taldekoek larunbatean Lakuntzan, 12:30ean. Ondoren ekitaldi politikoa izanen da. "Mikelen monolitoak hamaika eraso jaso ditu, oroitzapen plaka sarritan lapurtu dute baina Mikelen memoriak dirau. Sakanan ez dugu ahaztu, baina etorkizuna ilusioz begiratzen dugu, askatasunaren aldeko militanteen biziak ezin direlako alferrikakoak izan" nabarmendu dute lagunek.

bakea behar dugu. Horrez gain, berriz gertatuko ez denaren bermea zor zaigu, eta horretarako, etorkizuna zutabe demokratiko sendoetan oinarrituz eraiki behar dugu, non herri bezala dagozkigun eskubideak—erabakitze eskubideak— eta norbanakooi dagozkigunak—giza eskubideak— denontzako bermatuta egonen diren" adierazi dute Mikel Arregiren Lagunak taldekoek.

### Plaka berria



Etxarri Aranatzan lakuntzarraren oroigarria dago eta haren ondoan, lurtean, plaka batek gogorarazten du Mikel Arregi. 2009ko urteurrenean, senideak Etxarri lore eskaintza egitera joan zirenean ohartu ziren, norbaitek plaka kendu zuela. Orain berriro jarri egin dute. Jose Ramon Anda artista bakaikoarrek egindako oroigarriak hainbat eraso jasan ditu 1980an jarri zutenetik. Erroetatik atera izan dute behin baino gehiagotan eta lehergaiak jarri dizkio bitan, trilita eta Goma 2 erabiliz. Zaharberritu eta gero, 2004tik oroigarria egungo kokapenean dago, Etxarri Aranatzko Mikel Arregi plazan.

### SAKANA



Anbulantzietako langileak.

### Anbulantzietako langileek lan uzteak egingen dituzte

Lan hitzarmena "patronalaren abusuaren aurrean" defendatzeko, Nafarroako ambulanzietako 120 bat langileek igandean mobilizazioak, lan uzteak eta kontzentrazioak eginge erabaki zuten. UGT, CC OO, ELA eta LAB sindikatuek dei egin diete langileei lan hitzarmenaren defentsarako borrokarekin bat egiteko. Igandean bertan Iruñeko udaletxe parean kontzentrazioa egin zuten. Gaur, 14:00etatik 15:00etara kontzentrazioa egingen dute enpresak Iruñeko Landaben poligonoan duen egoitzan. Hilaren 22an eta 28an, 13:30etik 16:30era, lan uztea egingen dute.

### Sakanan

Dozena bat langile daude ibarrean lanean, Ambulancias Bidasoak enpresakoak. Haietatik bik aurrez ezarritako lanak egiten dituzte, 8 orduko lan txandak eginez. Gainontzeko hamarrak larrialdi zerbitzuan aritzen dira eta 24 orduko lan txandak dituzte.

### » Uharte Arakil



Aralar magalean dauden baserrietara eramaten du Amurgingo bideak.

### Amurgingo bidea konponduta

Atzera ere, txukunduta dago Uharte Arakilgo baserrietara joateko bidea. Etxera edo herrira joan etorriak egiteko zailtasunik ez dute izanen ez bizilagunek ez zerbitzuak eskaintzen dituztenek ere. Erabilerak eta eguraldiak baserrietarako bidea hondatu zuen. Aurreko bi asteetan bidean zeu-

den zuloak eta pitzadurak konpondu dituzte. Horrekin batera ezpondak egin dituzte. Lanek 9.000 euroko aurrekontua zuten.

Amurgingo bidea 1990an asfaltatu zuten. 2004an bidea atzera ere txukundu behar izan zuten 103.000 euroko aurrekontua zuten lanak eginez.

### » Arakil

### Olioaren etxera bisitan

Arakilgo Udalak hilaren 23rako, larunbata, kultura eta gastronomia lotzen duen irteera antolatu du. 8:30ean abiatuta Cascanteko La Casa del Aceite errota, etnografi museo eta herria bisitatzeko proposamenada Arakilgo Udalak egin duena. Horren ondoren, 14:30ean, hango jatetxe batean bazkaldu eta etxerako bidea hartzeko. Izena eman nahi duenak udaletxera jo beharko du (948 500 101 edo info@arakil.net). Ibarrean errodatuak daudenak 15 euro ordaindu beharko dituzte eta 20 euro ez daudenak.



### » Arbizu



Pintura faltan, errotonda erabilgarri.

### Errotonda industrialdean

Azken seinaleak jarri eta zoruan marrak pintatzea falta bada ere, dagoeneko Utzubar industrialdean dagoen errotonda berria bere egitekoa betetzen ari da. Industria gunearen 3. zatian Baikor enpresak lursaila erosi eta han pabilioia eraikitzen ari da. Bide berrira atera ahal izateko Nafarroako Gobernuak propio eskatuta errotonda bat egin behar izan da errepidean.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

**CONSTRUCCIONES ALZATE S.I.**

**ALZATE**  
**ERAIKUNTZAK**  
s.l.

Zubetia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
www.construccionalazate.com

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763



&gt;&gt; Altsasu

# Udala sinboloen inposizioaren kontra

**Epai bat betez, aurki udaletxeko balkoian jarri beharko da Espainiako bandera**

Altsasuko udaletxera bueltatuko da Espainiako bandera. 90. hamarkadatik ez da egon eta orain Ikur-reen Legea betearazten duen epai baten ondoren bueltatuko da. Herenegun Altsasuko Udalak, Bilduk, Geroa Baik eta Aralarrek aurkeztutako mozioa onartu zuen (PSN eta IU abstenitu egin ziren eta UPNk kontra bozkatu zuen). Udalak adierazi zuen Espainiako bandera "Altsasuko gizartearen gehiengoaren nahia eta borondatearen kontra" bueltatzen dela udaletxera.

Nafarroako Auzitegi Gorenak emandako epaiak behartzen du udala Espainiako bandera udale-

txean jartzea eta udalak epaiarekin ezadostasuna adierazi zuen. Mozioan adierazten da Altsasun hainbat identitate sentimendu daudela eta bandera horrekin edo beste batekin identifikatzen direnekiko errespetua adierazi zuten. "Horregatik, hain zuzen, errespetagarriak diren sinbolo batzuk beste batzuen gainetik inposatzearen kontra azaltzen gara". Mozioa aurkeztu zuten alderdiek adierazi zuten ez zirela kolore horiekin ordezkatuak sentitzen.

Mozioaren berri eman ez bandoa zabalduko du udalak. Aldi berean, bandera jartzen denean udaletxeko fatxadan Inposizioerik ez dioen kartela jarriko du. Udalak, bestalde, deitu daitezkeen mobilizazioetan parte hartzerantz animatu du.

**EAJk bere egoitzatik ikurrina lapurtu dutela salatzen du**



Altsasuko Bakea kalean duen egoitzatik ikurrina kendu egin dute aurreko egunetan. Horretarako masta makurtu dute. Lapurreta gogor gaitzetsi du Altsasuko EAJren Udak Batzordeak: "egon daitezkeen tokitik ikurrina desagerraraztea abertzaleen sinbolo baten kontra eraso da". Jeltzaleek haien egoitzako ikurrinaren errespetua eskatu dute. "Lapurreta sinbolo hori dagoen tokitik desagerrarazteko egindako eraso da".

&gt;&gt; Arbizu

# Zazpi urteko espetxe eskaera udala mehatxatu zutenendako

Nafarroako hainbat herritan eskuin muturreko Falange y Tradición taldeak hainbat eraso egin zituen 2009an. Arbizuko udaletxean, esaterako, agorriaren 20an lau udal ordezkariaren kontrako heriotza mehatxuak agertu ziren udaletxean egindako pintada batean: *Mendi,*

*di, Balda, Iriarte, Araña; orain zelan, bihar hilko zaituztegu.* Mehatxuak salatzen 500 pertsonen manifestazioa egin zuten Arbizun, *Atzoko eta gaurko faxisten aurka, utzi bakean Euskal Herria* leloarekin.

Horregatik eta beste ekintza batzuegatik bost gizon atxilotu



Pintada salatzen 2009ko irailean Arbizun egindako manifestazioa.

zituena poliziak urte hartako lastailan. Espainiako Auzitegi Nazionalen fiskaltzak "mehatxu terroris-

tak" eta "kalte terroristak" egotzita zazpita urteko espetxe zigorra eskaera egin du hirurendako.

SAKANA

# Doktrina dutenen kasuak banaka aztertuko dituzte

Estrasburgoko epaiaren ondoren, Espainiako Auzitegi Gorenak herenegun ebatzi zuen 197/2006 doktrina aplikatu duten epaitegiek erabaki beharko dutela hura indargabetu ala ez. Auzitegi horiek hartzen dituzten erabakie-

tan aldeak ados ez daudenetan Gorenean helegitea aurkezteko aukera dute eta kasu horiek soilik tratatuko dituela adierazi du. Horrekin batera, Botere Legeleari eskatu dio arautzeko Europako epaiak nola bete.



Espetxe politika salatzen aulkia.

Ondorioz, Espainiako Auzitegi Nazionalen zigor salako 16 epailek ostiralero, doktrina ezarri zaien eta libre gelditzea eskatu duten preso kasuak aztertuko dituzte, banan-banan. Fiskaltzari preso bakoitzari buruz duen iritzia eskatu diote epaileek. Gaur 13 presoren kasuak aztertuko dituzte. Haien artean ez daude Jesus Mari Mendinueta, Bautista Barandalla eta Unai Parot.

&gt;&gt; Altsasu

# Ospa! Herri mugimenduaren batzarra

**Gaur, ostiralean, 19:00etan, Iortian**

Ospa! Herri Mugimenduaren gaurko herri batzarren helburua hurrengo hilabeteetarako planingintza eztabaidatzea eta zehaztea izango da.

**Egoera errepresiboak salatzeneko instantzia berria eskura**

Errepresioaren aurkako Udakomision herri gertatutako egoera errepresiboguztiak jasota dokumentatzeko beharra ikusi zen. Hori ahalbidetzeko instantzia berri bat sortu da Altsasuko Udalean. Horrela, hemendik

aurrera Udaleko web orrian zein bulegoetan instantzia hori jasotzeko aukera izanen da.

Ospa! Herri mugimenduko altsasuarrei dei egiten die gertara errepresibo bat sufritu edo ikusten dutenean, instantzia berri horren bidez Altsasuko Udalean erregistratu dezaten, ondoren aipatu komisioan eztabaidatu eta neurriak hartu ahal ditzaten.

Ospa! mugimendutik adierazi dutenez, azken aste hauetan lau herritarrei isunak iritsi zaizkie, bakoitza 450 eurokoa, "baimenik



Aurtengo Ospa egunean gazteak Guardia Civilaren presentziagatik protestan.

gabeko mobilizazioetan parte hartu omen dutelako". Mugimendutik ere gehitu dute GAR-en kontrol batean beste bizilagun bat "oso modu bortitzean" tratatua

izan zela. Horregatik, batzar eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dute eta egoera errepresibo guztiak Altsasuko Udalean salatzen eskaera egin dute.

&gt;&gt; Altsasu

# Zinema emakumeenganako tratu txarrak salatzen

**Ostegunean, 19:00etan Iortia kultur gunean**

Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzen Nazioarteko Eguna izanen da azaroaren 25ean. Horren harira, Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak zinema emanaldia antolatuko dute. *Solomia* filma proiektatuko dute. Bat bateko amodioaren ondorioz ezkondu egiten den bikote bat da protagonista. Baina denborarekin emakumeak gizonaren tratu txarra jasotzen hasiko da.

&gt;&gt; Burunda



Haurrak ur ertzean jolasten.

# Jolasen eraginaz

Gurasoei haurren heziketan jolasak duen eragina azaltzeko tailerra izanen da hilaren 22an, ostiralean, 15:00etatik 16:30era Altsasuko ludotekan. Interesa duten guztiak parte hartu dezakete, 18ra bitartean, izena emanda. Horretarako 948 467 662 telefonora hots egin daiteke. Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Altsasuko ludotekak eta Altsasuko Emakumearen Bilguneak (Bateragarritasunaren Aldeko Altsasuko III. Ituna) antolatuko dute gurasoei zuzendutako tailerra.

&gt;&gt; Altsasu

# Triman Keniako aukerak aztertzen

Nafarroako sei enpresa, tartean Triman, Keniako Espainiako enbaxadore Bramwel W. Kisuyarekin eta KEPSA (Kenia Sector Private Alliance) Carole Kariukirekin bildu ziren. Keniarekin enpresa horiek izan ditzaketen komertzio erlazioak aztertuko dituzten bileran. Enpresetako ordezkariak haien jardunaren berri eman zieten keniarrei. Haien artean, inbertitzeko arrazoiak, finantzazio bide posibleak azaldu eta dituzten beharrak nabarmendu zituzten (erakuntza, energia, errepedeak, aireportuak, portua, ureztapena, ura, hondakin kudeaketa eta abar).

Topaketa Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak antolatu zuen. Erakunde horrek eta KEPSA hitzarmena aurki sinatuko dute bi herrialdeen arteko merkataritza erlazioak arintzeko. Kenia Afrika hegoaldean dagoen merkataritza libreko eskualderako atea izan daitekeela ere nabarmendu dute Ganberatik.



## SAKANA

# Aralar mendiko Kudeaketa Plana osatzeko bi bilera

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuan Aralar mendiko Komunitateko Garrantziko Tokiaren Kudeaketa Plana idazteko lanean ari da. Mendiaren inguruko herritarrengandik informazioa, iritziak eta iradokizunak jasotzeko eta haien bidez orain arteko zirriborroak hobetzeko departamentuak bi bilera antolatuko ditu heldu den astean.

Bilera horietan Natura 2000 Sarea Nafarroan nola dagoen azalduko da labor. Horrekin batera Aralar mendiko Komunitateko Garrantziko Tokia (KGT) aurkeztuko da (eremua, natura-balioak,

kontserbazio egoera eta egungo erabilerak). Bi aurkezpen horien ondoren KGTren Kudeaketa Plana egiteko ondutako dokumentu teknikoaren zirriborroa aurkeztuko da. Agiriak sortuko balira zalantzak argitu eta iritziak jasotzearekin despidituko da bilera.

Departamentuak prestatutako zirriborroaren kopia Aralarako Elkartearen egoitzan eta Arakil, Irañeta, Uhartea Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz eta Bakaikuko udalteeetan daude. Interesatuak han kontsultatu dezakete txostena bilera joan aurretik.



Hostoak gorritzen eta galtzen hasiak dira Aralarako zuhaitzak.

## Altsasu

# Eguberrietan bateragarritasun programa izanen da



Haur eta gurasoak plazan. ARTXIBOA

Opor garaietan badira lana eta familia ardurek seme-alaben zaintza uztartzea zail egiten zaien etxeak. Haiei zuzenduta antolatu du Altsasuko Udalak Dibertigarria, Bateragarria eskaintza. 3 eta 12 urte arteko (2001. urtetik 2010. urtera, biak barne) neska-mutilak zaintzeko zerbitzu bat da. Eskarmentua duten aisialdiko begiraleen ardurapean garatuko da programa.

Etxeko txikiek jolas, jarduera eta tailerren bidez oporrak lagu-

nekin pasatzeko aukera izanen dute abenduaren 23, 24, 26, 27, 30 eta 31n eta ilbeltzaren 2, 3 eta 7an. Gurasoek bi ordutegi dituzte aukeran: 8:30etik 13:30era (33 euro) edo 11:00etatik 13:30era (17 euro), Altsasuko Udal Ludotekan.

### Bateragarritasuna

Edonork bere bizitza eta lana egokitasunez garatzeko aukera. Fenomeno hau ez da norberaren arazoa, ezta soilik emakumeena ere, inplikazio nabarmenak baititu

### Izen ematea

Azaroaren 20tik 27ra izanen da, 012 telefonora hots eginez.

gizartean, familietan eta enpresetan.

Pertsonak lagundu eta zaintzeko lanik gabe gizarteak ezin duela bizirik iraun onartu behar da bateragarritasuna lortzeko. *Bateragarritasunaren aldeko Udal Ituna. Altsasun, 2006tik.*

# Onddo gutzien ordua

**Ostegunetik domekara Xurrut elkarteko sei tabernetan onddo pintxoak eskainiko dituzte**

Hirugarren urtez Xurrutek, Altsasuko tabernetan elkarteak, Onddoen Astea antolatu du.

Herritarren artean dagoen mikologi zaletasunari erreparratuta otu zitzaizen Xurruteko kideei eskaintza egitea eta basoko produktua tabernetako barrara eramatea, sukaldetik pasa ondoren.

Arkangoa, Gautxori, Koxka,

Lurrazpi, Urtzi eta Xume tabernetan dastatu ahal dira onddo gutziak. Pintxo bana bakoitzean eta guztiak bi eurotan. Onddo pintxo horietakoren bat dastatzen dutenek zozketa batean sartuko dira. Hala, Osasuna edo Laboral Kutxa taldeen partida bana ikusteko bina sarrera bikoitz zozketatuko dira. Horrekin batera, Iortia kultur gunean zinema ikusteko 10 sarrera bikoitzen zozketa ere izanen da.



Onddo pintxoaren txanda izanen da heldu den astean Xurrut elkarteko tabernetan.

Maiatzeko Gurutzearen aurretik elkarteak antolatzen duen

pintxo astearekin batera, altsasuarrek bere egin duten beste

hitzordu bat da Xurruten proposamena.

# Saiz finalera iritsi zen

Espainiako edertasun erregina Sofia del Prado (Gaztela-Mantxa) izendatu zuten ostiralean Fuengirolan. Jorge Esteban Martinek (Gaztela-Leoi) eskuratu zuen gizonen saria. Aragoi ordezkatzu parte hartu zuen Natalia Saiz altsasuarra bederatz finalisten artean sailkatu zen.

Saizek "oso pozik" aitortu digu

ez zuela bederatz onenen artean egotea espero. "Finalera pasa zirenen erkidegoaren izenak alfabetikoki esan zituzten. Aragoi saltatu zuten eta behera egin nuen. Baina bukaeran esan zuten". Gainontzeko hautagaiekin oso ongi moldatu dela eta familia baten moduan ibili direla azaldu digu. "Lagun talde gisa



Natalia Saiz Fuengirolan.

ibili gara, antolakuntzak ere esan digu sekulako talde onena izan garela".

Altsasuarra modaren arloan lan egiteko asmoarekin joan zen Fuengirolako galara eta zenbait kontaktu egiteko baliatu ahal izan du. Saizek kontatu digunez, Lucas Balboak, Tenerifeko diseinatzaile eta artistak, telebistarako balio lezakeela esan zion. Alejandro de Miguel diseinatzailearekin ere harremanetan izan zen

altsasuarra. Saizek badaki moda arlotik ezezeko asko jasoko dituela eta haietatik ikasteko prest azaldu da.

Fuengirolan eman duen aste luzean, aurreko ostiraleko gala prestatzeko behin eta berriz desfilatu behar izan zuen, gainera, lehiaketako babesleak ere bisitatu behar izan zituen eta leher egin da bueltatu zen etxera, atsedean eske. Baina berehala ikasten eta saskibaloian entrenatzen hasi da.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



## Alberto Artola eta Jorge Otxoa

Beti gogoan izanen zaituztegu

Lakuntzako 76ko kintoak



## Bernardo Mendinueta Andueza Francisco Javier Flores Araña

Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai.

Arbizuko kintuek

## Oroigarriak



**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.net](mailto:zorian@guaixe.net)

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

**Estreintzeko dagoen apartamentua alkilatzen da Altsasun.** Deitu 660 877 550 edo 666 785 045 telefonoetara.

### Opatutakoak / galdutakoak

#### GALDUTAKOAK

**Eguzkitako betaurreko beltzak.** Galduta dira Etxarrin. Otsain eta Epele inguruan. Opatzen duenak deitu 948 46 02 00 telefonora.

### Ikastaroak

**AESeK ikastaro hauek antolatu ditu.** Ingelera C1 (aurrelata), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren 30era; 2D aurrelata eta 3D planoen diseinua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren 20era.

**IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**Forem Navarra – CCOO ikastaroak.** Informazio gehiago: [www.foremnabarra.org](http://www.foremnabarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

### Lehiaketa

**Euskararen Ginkana.** Antolatu du Kutxa Ekoguneak Euskaltzaleon Topagunearen laguntzarekin. 3.000 € jasoko ditu talde irabazleak. Informazioa [www.euskararenginkana.net](http://www.euskararenginkana.net) webgunean.

### Oharrak

**Odol emaleak.** Irurtzun: azaroaren 28an, arratsaldean.

**CAF-ELHUYAR beka.** Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekintza landuko duten proiektuei lagundu nahi die sariketarak. Proiektuen izazera zientifikoa, artistikoa zein soziologikoa izan daiteke, eta arlo zientifikoa eta soziala harremanetan jartzea izan behar du haien muinak. Ilbeltzaren 31ra arte. Saria 5.000€. Informazioa: [www.elhuyar.org](http://www.elhuyar.org).

**Konposta hobetzeko saio praktikoa.** Azaroaren 16an, larunbatean, 10:30ean, Etxarri

Aranazko estalopetik. Aldez aurretik izena eman udalean 948- 46 00 04 edo [udala@etxarriaranatz.com](mailto:udala@etxarriaranatz.com)

**Familia ugariendako laguntza ekonomikoak.** Aparteko gastuendako da: entzumen protesiak, preskripzio optikoak, ortopedia. Eskera azaroaren 16ra arte egin daitezke gizarte zerbitzuetan.

**Gurasoendako formazio saioa.** Azaroaren 26an, asteartean, 16:30ean izanen da Txioika Haur ikastolan. Mugak hezkuntza gaiaz ariko da Jone Areta Urrestarazu. Izena emateko: 928- 37 30 23 edota [txioika.haur.ikastola@inigoaritz.com](mailto:txioika.haur.ikastola@inigoaritz.com)

**Etxarriko irakurle taldea.** Abenduaren 12an bilduko dira 19:00etan, Jon Arretxeren "19 kamera" liburuz hitz egiteko. Izena eman liburutegian.

**Argia ikastolari laguntzeko.** Laboral kutxa: 3035 0102 39 1020046142; Rural kutxa: 3008 0003 01 2598878821; Caixa: 2100 3695 18 2210009146; Kutxa: 2101 2505 16 0128446333.

**Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea.** nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

**Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonek.com/laguntza](http://www.euskonek.com/laguntza) [euskonek@euskonek.com](mailto:euskonek@euskonek.com), 943- 32 22 94.

**Hizkuntzak – trukea.** Informazio gehiago [zarbaldk@inigoaritz.com](mailto:zarbaldk@inigoaritz.com)

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigososefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila parega-

beak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin eta dendak.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko par-taide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informazioa: 656 711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasozen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eram-nan: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzua martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz-kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta-tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranzetan, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazio@sakana-mank.com](mailto:immigrazio@sakana-mank.com) posta elektronikoan.

mank.com posta elektronikoan.

**Gazteendako sexualitate aholkularitza.** Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazte-ria@altsasu.net](mailto:gazte-ria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaituz Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru per-sonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioa: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo [sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berresku-ratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

**Iparaldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu zerbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

**Garraio laguntzarako diru bilketa.** Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zerbaki zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

**Emakumeendako doako aholkularitza juridi-koa.** Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunea jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net)).

**Ezgaizten Elkarteak bazkideak eta lagun-tzaileak behar ditu.** Sakanako Ezgaizten Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaizteak aisia behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaizten Elkartetik.

**Itzulpen zerbitzua.** Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta

### JAIOTZAK

- Jon Ramos Diez, urriaren 27an Altsasun.
- Iraia Vinagre Muñoa, azaroaren 6an Altsasun.
- Enara Areta Razkin, azaroaren 5ean Lakuntzan.

### EZKONTZAK

- Omar Galarraga Altuna eta Izaskun Lobo Zubizarreta, azaroaren 9an Etxarri Aranzetan.

### HERIOTZAK

- Manuel Razkin Flores, azaroaren 5ean Arbizun.
- Maria Carmen Galbete Barandiaran, azaroaren 6an Ziordian.
- Ines Goikoetxea Anso, azaroaren 8an Bakaikun.
- Daniel Montero Ortega, azaroaren 11n Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

mankomunitateak, komertzioek, enpresek eta elkarteek erabil dezakete urte guztian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrekoak jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo [itzulpenak@sakana-mank.com](mailto:itzulpenak@sakana-mank.com)) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

**Naziotasun eskubidearen urraketak salatze-ko telefonoa.** Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean ageri den naziotasun eskubidea urratzen jarraitzen dute frantziar edo espainiar izatera behartzen gaituztenean. Gurea ez den naziotasuna adieraztera behartzen gaituzten bakoitzean (edozein izapide administratibo edo ekonomiko egiterakoan, botoa ematerakoan, etab.) salaketa egiteko telefonoa jarri du Udaltzuzteak: (0033) 559 595 648.



**KIROL BEGIRALEENDAKO IKASTAROAN**  
**TOKIA BADAGO:** Mank-ek kirol monitore-  
 endako ikastaroa antolatu du, kirol jardue-  
 retan euskararen erabilera sustatzeko.

Azaroaren 19an eta 26an eskainiko da,  
 11:00etatik 13:00etara, Lakuntzako uda-  
 letxean. Izena emateko: 948 464 840.

## Pala

SAKANAKO NESKEN  
 VIII. PALA TXAPELKETA

## 3. jardunaldia jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarriko Nesken Pala Eskolarekin batera antolatutako Sakanako Emakumeen VIII. Pala Txapelketan 26 biko daude lehian. Asteburuan 3. Jardunaldia jokatu-ko da Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan.

## 3. jardunaldia

**Gaur, Etxarri Aranatzen**

**Kimuak:**

Ane-June / Uxue-Narao O.

Narao-Irantzu / Elorri-Saioa

Atsedena: Maitena-Elai

**Haurrak:**

Maddalen-Nahia / Amaiur-Narao

L.

Dinora-Ainhoa / Aroa-Oihane

**Kadeteak:**

Garazi-Aiora / Maddi-Amaia

A.Nagore-Maddi / Irati L.-Lide

Irati I.-Ane / Ariane-Uxue

**Gazteak:**

Andrea-Irati L. / Uxue-Andrea

Olaia-Izar / Irati-Miriam

Atsedena: Ainara-Ekhiñe

**Helduak:**

19:30ean: Maite-Saioa / Ainhoa-

Maddi


20:15ean: Aitziber-Ixone / Narao-

Garazi

21:00etan: Yanira-Rebeka / Lau-

ra-Nagore

## Pilota



GAZTEEN MAILAKO  
 NAFARROAKO BURUZ BURUKOAK

## Bakaikoak eta Mateok txapela jantzi nahi dute

Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu-ko da, larunbatean, Gazteen Mailako Nafarroako Buruz Buruko Txapelketako final handia, 12:00etan hasiko den jaialdian. Finalera Erreka taldean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarra eta San Migel taldeko Xabier Mateo iritsi dira. Finalerdietan Bakaikoak 18-15 irabazi zion Unai Lasori (Huarte), eta Mateo zuzenean sailkatu zen, Errandonea lesionatuta zegoelako. Ea aizkorarekin bezala, beste txapel bat etortzen den Etxarriarra.

## Pilota

## Elkartasuna frontoira

JANARIA ERAMATEAREN TRUKE PUNTAKO PARTIDAZ GOZATZEKO AUKERA IGANDEAN IRURTZUNEN

Krisiarengatik eta gobernuek hartutako neurri ekonomiko gogorrenengatik jende asko oso gaizki ari dela pasatzen gauza jakina da. Familia askori izugarri kosta egiten zaie hilabete bukaerara heltzea eta beste askok soilik elikatzeke eta jateko arazoak dituzte. Familia horiei laguntza emateko duela 12 urte sortu zen Irurtzungo Elikagaien Bankua.

## Irurtzunen 59 familiek jasozten dute otzara

Egun Irurtzungo 59 familiek jasozten dute Irurtzungo Elikagaien Bankuak eskainitako elikagaien otzara. Oinarrizko errenta edo diru sarrera txikia jasotzen duten familiak dira, gaizki pasatzen ari direnak. Lau boluntario aritzen dira bilketa lana egiten, otzarak prestatzen eta familiei banaketa egiten. Udan 70 familiari eskaini diete laguntza.



Aurretik ere elkarrekin jokatu izan dute Ongayk eta Lasak. INTERNET

Irurtzun Eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlana egiten du Irurtzungo Elikagai Bankuak, eta gizarte zerbitzuak dira datuak aztertuta laguntza zein familiei dagokien erabakitzen dutenak. Iganderako

janari bilketa berezia egitea erabaki dute bi taldeek: pilota jaialdi ikusgarria antolatu dute igandean Irurtzunen eta sarrera kobratu beharrean, pilotazaleek elikagaiez betetako poltsarekin ordaindu beharko dute sarrera:

## I. Eskualdeko Elikagai Bankuen aldeko lehia

**Igandean, 17:00etan, Irurtzunen**  
 - Abajo I.a eta Abajo II.a / Razkin I.a eta Razkin II.a  
 - Mikel Goñi-Gorriti / Ongay-Lasa III.a

olioa, pasta, arroza, kontserbak, esnea, lekaleak... produktu horiek izango dira jasoko direnak. Elkartasuna ere frontoietara iritsi da.

## Sakandarrak elkarren kontra

Lehen partidari Abajo I. eta II. ak bikoa osatuko dute Razkin I. eta II. aren kontra. Eta partida nagusian pilotari profesional ohiak ariko dira lanean. Mikel Goñi Gorriti uhartearrekin osatuko du bikoa, Alberto Ongay satrustegiarraren eta Oskar Lasa etxarriarraren kontra aritzeko.



## Ezkurdia vs Irujo: nork aurrera?

ASTELEHENEAN EZKURDIAK EDERKI ESTUTU ZUEN OLAIZOLA, BAINA GOIZUETARRAK 22-18 IRABAZI ZUEN

## Lau t'erdia. Final laurdenetako partida erabakigarriak

**Martinez de Irujo - Ezkurdia** (larunbatean, 17:00etan Labriten. NITRO. Sarrerak erreserbatzeko: 656 799 423)

**Saralegi - Idoate** (igandean, 17:00etan, Astelenan. ETB1)

Joseba Ezkurdia lau t'erdiko sorpresetako bat izaten ari da. Xala irabazi eta gero, astelehenean beste ezusteko bat emateko zorian egon zen arbizuarra, Aimar Olaizola gogor estutu baitzuen. Baina arbizuarrak egindako akatsak, erretoan batez ere, eta bukaerako une erabakigarrian goizuetarraren esperientziak, Asegarcekoari eman zion garaipena. Horrela, 22-18 irabazita, lau t'erdiko finalerdietarako sailkatu da Olaizola II.a. Xala txapelketatik kanpo geratu da eta Irujok eta Ezkurdia finalerdietarako txartela dute jokoan.

## Aimar eta Oinatz aurrera

Beste multzoan, Bengoetxea VI.ak tokia du finalerdietan. Arretxe II.a kanpoan geratu da eta Saralegik eta Idoatek bertara pasatzea dute jokoan asteburuan. Hortaz, kasik bi finalen aurrean gaude.

## Maisua eta ikaslea elkarren kontra



Sekulako ikusmina sortu du final itxura duen partida honek. Are gehiago, Irujo eta Ezkurdia entrenamendu lagunak direla kontuan hartuta. Maisua eta ikaslea, elkarren artean primeran ezagutzen direnak. Irujoren sparring lanetan aritu da Joseba Ezkurdia arbizuarra azken urteotan, eta Ibero-koaren ahultasunak eta bikaintasunak primeran ezagutzen ditu. Eta, alderantziz. Hortaz, biek ederki dakite arerioa nondik estutu dezaket. Asteazkeneko pilota aukeraketan biek hitz ederrak izan zituzten. "Nik ere ez dakit zein diren Irujoren ahulguneak; pilotari osoa da. Oso berezia izango da bere kontra jokatzeko. Oso zail daukat, baina ea egun txarra daukan eta zerbait egiteko gai naizen" zioen Ezkurdia. Favorito nagusia da Irujo, baina presio hori kentzen saiatu zen Iberoak. "Ezkurdia txapelketa bikaina egiten ari da. Erakutsi du distantzia honetan zenbat jokatzeko duen; abiadura handia ematen dio pilotari" adierazi zuen txapelkun handiak. Jokin Etxanizek Irujok eskuin eskuko hatz batean duen pitzadura ekarri zuen gogora. "Denok dakigu zein arazo duen Irujok eskuin hatzetako behatz batean, eta Ezkurdia nola dagoen ere bai. Parean ikusten dut partida" adierazi zuen Aspeko kirol zuzendariak. Baina loreak lore, Irujok du favoritoaren presioa gainean eta Ezkurdia, alde horretatik, lasaia aterako da kanpara. Irujok soilik ezker eskuarekin probatu zituen pilotak, eskuinari atsedena emateko. Ezkurdia azaldu duenez, "nire jokoa egingo dut: pilotari abiadura ematen saiatuko naiz eta aukera dudanean tantoa bukatzen. Irujori eskuin eskua bilatzen ez naiz itsutuko".

## Errestoak, hobetu beharrekoa

Aimarren kontra ongi jokatu zuen Ezkurdia. Joko dotorea egin zuen, bizia eta lotsagabea. Baina erretoa izan zuen Akilesen orpoa. Errestoan akats asko egin zituen eta Aimarrek aurrea hartu zuen.

16-11 galtzen zegoenean, Ezkurdia hazi egin zen eta 7 tanto egin

zituen jarraian, 16-18 aurreratuz eta goizuetarra itoz. Egoera horren aurrean, ofizioa eta esperientzia bere alde erabili zituen goizuetarrak, txakur zaharrek bezala, eta tantoak bere alde eroriziren. Horri gehituta Ezkurdia txapapera bi pilota bota zituela eta sake bat gaizkierantzun zuela, 22-18, horrela des-

peditu zen lehia. Nolanahi ere, Ezkurdia izugarri estutu zuen Olaizola eta goizuetarrak uste baino gehiago lan egin behar izan zuen arbizuarra irabazteko, aspaldiko partez izugarri sufrituz. "Errestoan huts asko egin dut eta pilotari hauekin ordaindu egiten da hori" adierazi zuen Ezkurdia.





## Motoziklismoa

## Mariñelarena ezin izan zen Chesten aritu

Valentziako Chesteko Ricardo Tormo zirkuituak erabaki zuen, asteburuan, Munduko Motoziklismo Txapelketa. Moto GP mailan Marc Marquezek irabazi zuen mundiala, Moto 2an Pol Espargarók eta Moto3an Maverick Viñalesek, hirurak pilotu katalanak.

Moto 2an, Chesteko lasterketan azken ordura arte lehiatzeko esperantzak zituen Alex Mariñelarenak (Blusens Avintia, Kalex), baina ezinezkoa izan zen. Japoniako Sari Nagusian ezker eskumuturra 4 tokitatik hautsi zitzaion irurtzundarrari, eta urriaren 31n eba-kuntza egin zioten. Ostiralean Chesten entrenamendu libretan aritu zen baina taldeak argi ikusi zuen pilotua ez zegoela, inondik inora, %100ean. "Oraindik ez dut inarririk eskuan eta ezin izango nuen bospasei buelta baino gehiago jasan. Nahiago izan dugu gehiago ez arriskatzea eta ongi errekuiperatzea, urtea ahal den hoberen bukatzeko eta aurre-denboraldian ongi egoteko" adierazi digu pilotu irurtzundarrak. Izan ere, Chestekoa lasterketa luzea



Eserita jarraitu behar izan zuen proba.

zen, 27 itzulikoa, eta lesioarengatik pilotuak oraindik ez du motorra ongi kontrolatzen balaztatzen. Pilotuak gehitu zuen "triste delo, zaleak ikusita bihotzak motorra hartzera bulkatzen dizulako, baina egoera hauetan ezin da pistara sartu".

## Igandean Espainiako Abiadura Txapelketa

Irurtzungoa Munduko Motoziklismo Txapelketan ariko da hurrengo denboraldian, Tech 3 eskuderiarentzako iragarria. Yamaha eskuderia ofizialeko talde satelitea da, hurbilekoa. Moto 2an lehiatuko da. Danny Kent pilotua ordezkatu du eta Marcel Schrotter pilotu alemaniarra izango du taldekide. Baina irurtzundarrak oraindik ez du aurtengodenboraldiabukatu. Espainiako Abiadura Txapelketan aritzen da (Targobank Motorport), eta aipatu txapelketa despeditzeko azken

bi probak falta dira. Igandean, azaroaren 17an, Valentziako Ricardo Tormo zirkuituan azken aurreko lasterketa jokatu da eta azaroaren 24an, Jerez, azken proba. Egun bigarrenada Mariñelarena (122 puntu) eta Roman Ramos liderrarekin (146 puntu) duen aldea laburtzea izango da bere lana. "Astebururako datorrenari erantzuteko topera egotensaiatuko naiz!" gaineratu du baina medikuekin egon ondoren gaur bertan jakingo du lehiatuko den ala ez. Gaur entrenamendu libreak egingen dira, bihar ofizialak eta igandean lasterketa (Moto 2an 13:00etan).

## Txirrindularitza

## Lakuntzar bat Rural Kutxan



## Odei Juango lakuntzarra Sakanako afizionatuen taldean ariko da

Tuterako Bed4U hotelean kontzertatuta egon dira Rural Kutxa-Seguros RGA afizionatuen taldeko txirrindulariak. 19 txirrindulari ditu taldeak, tartean Aralar Txirrindularitza Taldeko Irabia Inter-sport taldetik datorren Odei Juango lakuntzarra.

## Txirrindulariak

**Jarraitzen dutenak:** Migel A. Benito (Gaztela L.), Asier Unanue (Gipuzkoa), Jesus A. Rubio (Gaztela M.), Jaime Rosón (Gaztela L.), Isaac Carbonel (Katalunia), Ion Ander Insausti (Gipuzkoa) eta Francisco Medina (Andaluzia).

**Berriak:** Migel Indurain (Nafarroa), Odei Juango (Lakuntza), Josu Zabala (Nafarroa), Cristian Rodriguez (Andaluzia), Arnau Soé (Katalunia), Daniel Lopez (Andaluzia), David Civera (Valentzia), Hector Saez (Gaztela M.), Igor Romero (Gipuzkoa), Iker Azkarate (Gipuzkoa), Juan Jose Tamayo (Valentzia) eta Marcos Altur (Valentzia).

## Aizkora

## Nazabal, Nafarroakoa janzteko faboritoa

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu du gaur, 17:30ean, Donezteben

Etxarri Aranazko ferietan jokatu zen Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa. 9 aizkolari lehiatu ziren eta lehen bostek lortu zuten gaur Donezteben, 17:30ean jokatu den final handirako txartela: Floren Nazabalek (13:30), Juanjo Lopez Azpilikuetak (14:25), Jon Rekondok (14:35), Ruben Saralegik (15:14) eta Antonio Senosiainek (17:03). Aipatu bost aizkolarietako ondoko lana egin beharko dute final handian: 4 kanerdiko 4 60 ontzako eta 2 oinbiko erdibitu.

## Sasoi betean

Azken orduko ezustetik gertatzen ez bada, Floren Nazabal txapela janzteko faborito nagusia da. Sasoi



Nafarroako bost finalistak, kanporaketan egindako denborarekin.

betean dabil etxarriarra eta jokatzen ari den guztia irabazten ari da. Berriki alde handiz irabazi zuen Urrezko Aizkolari Txapeladun Ligako kopa, eta Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketetako kanporaketetan ere gainontzeko aizko-

lari guztien gainetik ibili zen. Osasunak errespetatzen badu, bera ibiliko da aurretik. Nafarroako 7 txapela ditu etxarriarrak eta zortzigarrena janzteko dena emango du gaur Nazabalek. Ea horrela den. Zorte onena opa diogu.

## Aizkora

## Magna Xota Futsalen kontra berpiztera

Magna Nafarroa Xotak oso egutegi estua izan du azken egunotan. Ostiralean, 4-2 irabazi zion Umagon Zaragozak Magnari. Gol aukera ugari izan zituen Irurtzungo taldeak, baina punteria falta latza. Eta hor joan zitzaion partida. Astearrean, kasik errekuiperatzeko tarterik izan gabe, Bartzelona ahaltsuaren kontra aritu ziren. Nahiz eta irurtzundarrek aurpegia eman, merezita irabazi zuen Bartzelonak. Hori bai, 6-1eko gehiegizkoa izan zen.

Imanol Arregi entrenatzailearen ustez, Bartzelonari oso argiak ziren faltak ez zizkioten seinalez-

tatu. "Eta falta horien ondoren iritsi ziren euren golak" gaineratu zuen. Baina Bartzelonakoa ahaztuta, gaurko lehiari burua entrentatzaileak.

## Gaur Futsalen kontra

Inter Movistar taldeak lider jarraitzen du (25 puntu), Bartzelona rekin puntutara berdinduta. Magna Nafarroa Xota 8.a (12 puntu).

Gaur Santiago Futsal taldea hartuko du Magna Xotak, egun sailkapenean 17 punturekin 5.a den taldea, 20:30ean, Arrosadia Pabilioian. Ea galeren ondoren garai-pena etortzen den.

## Xotak babesle berria du: Precomar

Marcillako enpresaren Cusqueña garagardoa eta Don Molinico iragarriko ditu Irurtzungo taldeak

Marcillan egoitza duen Precomar enpresa Xotaren babesle berria izanen da. Xotak eta Precomarrek urte bateko hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horri esker Xotak babes ekonomikoa jasoko du eta Magna Nafarroa Xotak publizitate berria izango du jantzetan: kamisetan Cusqueña garagardoa, Perutik datorrena, eta praktetan Don Molinico kontserba-begetalen publizitatea. Tatono Arregi oso pozik agertu zen marka berrien babesletzatik.

## Disko jaurtiketa



## June Kintana sarituta

Fuentes-Dutor fundazioak 2011-2012 denboraldiko Nafarroako atleta onenak saritu zituen Fuerte del Principe erresidentzian. Kategoría absolutuan, sarituen artean June Kintana disko jokalari bakaikoarra zegoen, Espainiako txapelketan 6. postuan sailkatzeagatik.

**Azaroko bazkide zozketa**

**AZAROKO SARIAK:**

- 1- KUKUXUMUXU MAINDIRE LOTE BAT + 2 SARRERA EKAINBERRI + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA
- 2- PIRRITX ETA PORROTIX SUDADERA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA
- 3- SUKALDEKO LACTURALE ZAPIA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA
- 4- LIBURU LOTEA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA



**AZKEN TAUPADAK.** Larunbatean 600 ikusleren aurrean eman zuen musikari gisa azken taupada Fran Idaretak. Taudapak ikuskizunaren azken emanaldia- ren ondoren parte-hartzaileak afaltzera bildu ziren.

# Artean dantzan



**Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

Ikasketak bukatu eta mundu profesionalera saltoegin nahi duten dantzariak osatzen dute Dantzas konpainia. Duela 2 urte sortu zen konpainia eta Iparaldearen eta Hegoaldearen artean daude dantzariak. Hortik dator ikuskizunaren izena: *Arte-an*.

## Hiru atal

Konpainiak hasieratik ezagunak

diren lanak ditu. Haietako biren koreografiak ikusteko aukera izanen da bihar Altsasun. Programak hiru atal ditu. Aurrena, *Earth apples*, Itzik Galili koreografo israeldarra egina da, Mercedes Sosaren musika duena. 2008an *Lursagar* izenarekin mustu zuten hori. Orduan zazpi gizonetako dantza zuten, bihar, berriz, 5 emakumezko eta bi gizonetako ariko dira. Bigarrena, *A place between*, Eslovakiako Lukas Timulak koreografoarena da, eta Santaolalla, Hauschka eta

## Bonoak

Dantza taldeetako kideek sarre- rak merkeago eskuratzeko auke- ra izanen dute. Altsasuko Udale- ko Kultura Sailak bi eskaintza egin ditu: 10 sarrera 70 euroren truke erosten duenak beste sarrera bat dohainik jasoko du eta 15 sarre- ra erosten dituenak, sarrerako 6 euro ordainduko ditu (%25eko deskontua) eta sarrera bat opari.

Arvo Parten musika du. Gizakiak esperientzi, egoera eta leku berriak bilatzeko duen grina da abiapuntua, une iragankorrek aztertze- ko.

Programa Galiliren beste koreogra- fia batek ixten du, *Flash deluxe*. Horrek Paskal Indo eta Percosaren musika ditu. Indarra eta maisutasuna nahasten dituen lan horrek, gainera, Donibane Lohitzu- neko konpositore eta Labeque ahiz- pen ohiko kolaboratzailea den Pax- kal Indoren danbor eta txalaparta- ren melodia sortzailea du oinarri.



## Euskara gobernuko goi erakundetan

Asteartean eta asteazkenean, 9:00eta- tik 13:30era, NUPeko Gurbitzak eraikuntzako Nicolas Oresme gelan

**N**afarroako Unibertsitate Publi- kiko (NUP) Geografia eta His- toria Sailak antolatu du Euskara gobernuko goi erakundetan Histo- rian zehar izenburua duen nazio- arteko jardunaldia. Alvaro Adote- kin batera Juan Madariaga Orbea da jardunaldiaren koordinatzailea. Egiarretako historia irakasleak aurreneko egunean hartuko du hitza. *La mediación lingüística entre la población vasca y las instituciones, 1600-1840* izenburuko hitzaldia eskainiko du. Harekin batera bi egu- netan Andres Urrutia, Alvaro Adot, Imanol Treviño, Iñigo Urrutia, Xabier Irujo, Roldán Jimeno, Ene- ritz Zabaleta eta Joseba Intxausti hizlari ariko dira.



## Feriak ikusgai

Sariak banatu ondoren, astelehenera arte ikusgai daude argazki rallyra aurkeztutako lanak Gure Etxea eraikinean

**L**arunbatean banatu zituen Altsa- suko Mendigoizaleak taldeak ferietako rally argazkiko sariak. Lastailaren 20an jokatu zen 28. edi- zioan 46 parte-hartzaile izan ziren. Helduen mailan aritu ziren 40 argaz- kilarien artean Lizarrako Ivan Mar- tinezendako izan zen saria. Sora- luzeko Carlos Cosek eta Urretxuko Carlos Mediavillak bigarren eta hirugarren sariak eskuratu zituz- ten. Bazkide onenaren saria Fernan- do Bengoetxearendako izan zen eta Altsasuko bilduma onenarena Josu Dorronsororendako.

Haurren mailan dozena erdi argazkilari aritu ziren. Aurrene- ko saria Josune Imaz olaztiarrak eskuratu zuen. Mendillorriko Mikel Urdinek eta Iruñeko Egoi Martinezek osatu zuten podiuma.

## bazterretik

Haritz Viñas

### Bashira

Aupa irakurle!!

Gaurkoan zuentzako gonbidapena dakart. Datorren osteguna 28, arratsaldeko bederatzietan, Atarrabiako "Sala Totem"-en egongo den kontzertu baterako gonbidapena hain zuzen.

Esan dudaz bezala, datorren ostegunean sekulako kontzertua edukiko dugu Atarrabian. Bertan Raperos de Emaus, Bashira eta Rojo Vivo aurkituko ditugu, eta haiekin batera denbora bikaina pasatzeko auke-

ra. Kontzertua doanik izango da, baina sarrera moduan litro bat esne edo litro bat olio eraman behar da, eta bertan jasotakoa "Paris 365" jatetxera eramango da. Kontzertu honetan Rap (Raperos de Emaus eta Bashira) eta reggae (Rojo Vivo) musikaz gozatzeko aukera izango dugu. Nahiz eta lehenengo bi taldeak Rapestilokoak izan, ez dugu aspertzeko aukerarik izango, bi hauek Rap estilo ezberdinak baitituzte. Lehengoak, base elektronikoko erabiltzen ditu eta honen letrek gehien bat bizitzaren alde

sozialera eramango gaituzte; bigarreneak, ordea, base elektronikoko alde batera utzi eta banda batekin batera abesten du eta honen letrak ere kritika soziala duelarik helmuga, baina modu lasaiago batez egiten du. Azkenik, Rojo Vivo-k bere erritmoekin reggae atmosfera baten barruan murgilduko gaitu. Kontzertu hau Bashira taldeak prestatu du eta bertan bere lehenengo diska "nacedero" aurkeztuko du. Bi pertsonen proiektuak izandako talde honek, gaur egun 9 kide biltzen ditu bere baitan. Xabi eta Sara eman

zioten hasiera proiektu honi. Biak batera 3 alditan "Encuentros" izeneko lehiaketan izena eman zuten. Horrela hasi zen talde honen ibilbidea. Lehenengo 2 aldietan ez zuten espero zuten emaitza lortu, baina lanarekin jarraitu zuten eta hirugarren urtean, Gorkaren kolaborazioarekin lehia irabaztea lortu zuten. Horretaz aparte, base elektronikoko alde batera uztea erabaki zuten eta abeslarietaz gain, banda bat sortzeko asmoarekin ibili ziren. Behin banda batu zutenean lanarekin hasi ziren, eta datorren

ostegunean 2 urtetako lana lehenengo ikusteko aukera izango dugu. Kontzertua gustokoa izanez gero Bashira taldearen diska erosteko aukera izango dugu bertan eta prezioa bakoitzak erabakitze-ko aukera izango du. Honetaz aparte, taldeko kamisetak erosteko aukera ere izango dugu. Beraz, osteguna libre baldin baduzue musikaz gozatzeko aukera bikaina izango dugu datorren ostegunean Atarrabian. Bertan ikusiko gara.

**kattuka**  
haur eskola



## MATRIKULA EPEA: AZAROAREN 25etik 29ra (9:30-16:00)

- Haur Eskola Publikoen sarea.
- Urtariletik aurrera hasteko (2013/2014 ikasturtean).
- 2013an jaiotako haurrentzat (16 aste eta 12 hilabete bitartean).
- Egutegi eta ordutegi aukera anitzak.
- Hezkuntza proiektu propioa.
- Haur Hezkuntzako profesionalak etengabeko formakuntzan.
- Haurren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen dituen hezkuntza proiektua.
- Edoskitzearen errespetua.
- Familia eta eskolaren arteko harremanen sendotasuna.

Informazioa: [kattukahaireskola@gmail.com](mailto:kattukahaireskola@gmail.com) · 948 567 009 · Etorri Kattuka Haur Eskola ezagutzera!



## Programa anitza eskainiko du Iruñeko orfeoiko gazte abesbatzak



Azaroaren 17an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan

Juan Gainzak zuzentzen duen Iruñeko orfeoiko gazte abesbatzak hainbat garai eta tokitako musika ekarriko du bihar Etxarri Aranatzera. Errenazimendutik XX. mendera arteko doinu eskaintza da, *Klasikotik modernora* izenburua duena. Herri kantu harmonizatu ugari, tartean, Hego Amerikakoa edo pop-rock taldeena (Beatles, Queen edo Itoiz).

Abesbatza 17 eta 22 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Iruñeko Orfeoia baratzat izateko sortuz, baina berezko nortasuna du, baita bere kontzertu denboraldi propioa ere. Helduen abesbatzarekin hainbatetan parte hartu dute gazteek. Diana Yerro piano-jotzailearen laguntzarekin ariko dira gazteak.

Programa	Egilea
Lana	Julio Domínguez
Do mar pola orela	Julio Domínguez
Now is the month of Maying	Thomas Morley
Ave María	Arcadelt
Pater meus	Antonín Dvořák
Die Nachtigall, "Sechs Lieder" op 59, nº4	F. Mendelssohn
Aritz adarreen-Katalin	Julen Ezkurra
Lau Teilatu	arr. Josu Elberdin
Caminito	arr. Dante Andreo
Rosas pandan	G. Fernández
Bohemian Rhapsody	F. Mercury, arr. John Hondorp

## Rivera Madrilen

A itsasun bizi den Carlos Rivera margolariak gaur, 19:30ean, erakusketa mustuko du Madrilen, Orfila galerian. *Construcciones* izenburua emandio erakusketari Riverak. Oihalgainean kokatutako egur zati margotuekin osatutako koadroak dira ikusgai jarriko dituenak. Hiru dimentsioetako eraikuntza horiek Madril aldirietan bukatu gabe dauden eraikinetan dute sorburua.

## Hitzordu poetikoa

Larunbatean, 17:30ean Uhart Arakilgo Donibane jubilatutako elkartearen

Zortzigarren urtez poesiaren zaleek hitzordua dute Uhart Arakilen. Bost errezitaldi iragarri dira. Poeta uhartearrak dira Blanca Arrizabalaga eta Alfonso Muro. Ez dute aurreneko aldia etxean errezitatzen dutela eta besteendako anfritrioi lanakegin behar dituzte. Hala ere, Mercedes Viñuelak ez du aurkezpen handirik behar Uhart Arakilen, ia urtero parte hartu baitu poesia topaketan. Iruindarra olerkigile

handia da. Liburu bat idatzia du eta errezitaldi arrakastatsuek eskaini ditu. 80 urtetik gora izan arren, lanerako gogoz jarraitzen du.

Tomas Yerro Villanueva poeta ezagunak literatura analisiari buruzko hainbat liburu argitaratu ditu eta bere kolaborazioak hainbat aldizkari eta argitalpenetan publikatu dira. Itaca eta Rio Arga aldizkariaren zuzendari izan zen. Leringoa, poeta izateaz gain irakaslea ere izan da eta Altsasuko institutuan eman zituen klaseak. Gainera, 1991 eta 1999 urteen artean Nafarroako Gobernua kultur arloko ardura izan zituen.



Jose Luis Abad iruindarrak betidanik izan du literatura gogoko. Sonetoak edo narrazio laburrez gain nobela historikoan ere ausartu da. 30 sari baino gehiago

eskuratu ditu. Letrez gain, bihar-ko topaketa poetikoak Raul Lopez gitarra jotzailearen laguntza izanen du. Despeditzean auzatea izanen da.

## Kalakan, folk ametsak hasteko



Igandean, 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean

Musika herrikoa, bertakoa edo beste kulturetakoa, doinu horien erakusle izateko sortu zen Folk Ametsen zikloa. Musikazaleendako udazkeneroko ezinbesteko hitzordua da Irurtzunen.

Igandean abiaraziko du zikloa Kalakan taldeak, Ipar Euskal Herriko hiru perkusionista kan-

tariak. Thierry Biscary, Xan Errotabehere eta Jamixel Bereau haien ahotsak eta perkusioa (danborrak, txalaparta, tobera eta intxaurrak) eta gutxi batzuetan txirulak edo alboka dituzte musika sormenerako oinarri. Eta haietatik abiatuta Kalakan hirukoteak kantu herrikoiak bere modura moldatzen ditu, betiko doinuak zahar berri eginez. Tradizioa belaunaldi berriei, munduari emateko beste modu bat sinpletasunetik, doto-

**Segida**  
Helduden igandean, ordu eta toki berean, AEBko musikan barnako bidaia eskainiko du The Pink Rangers laukoteak.

retasunetik abiatuta, eta publikoari emozioak sorraraziz.

Madonna kantariarekin biran ibili eta gero aurretik zuten ildoari eutsi diote Iparraldeko musikariek. Haien musika eskaintzak Erribera eta Zuberoako txokoak batuko ditu munduan barnako beste doinuekin batera.

## Nahiko Egurre

Punk taldeak despedidako kontzertua eskainiko du larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean

A metsa gauzatu ondoren pilatutako nekeak eta motibazio berrien sorrerak Egurre taldea desegitera eraman dute. Entsegu lokaletik gertu, Etxarriko gaztetxean agurtuko dituzte zaleak. Biharko emanaldirako lau-koak taldeko aurreneko formazioan zegoen Junior (gitarra) eta aldi batez aritu zen Endika (bateria) gonbidatu dituzte. Egurrekin batera oholtzan Iruñeko Bortitz taldea ariko da jotzen. Despedida

festa DJ Jo Ta Txokuzatuko du. Joxe Aldasoro etxarriarra da Egurre laukoteko bateria. 2005ean sortu zuen taldea iruñerriko beste hiru lagunekin batera. Orain arteko ibilbidean bi maketa eta 100 kontzertu inguru emanda despedituko dira oholtzetatik. Aldasorok **Beleixe Irratian (FM 107,3)** punkaren zu zeuk egin filosofia ekarri du gogora: "garrantzitsuen da gustatzen zaizuna egitea". Egurrek bateria jotzeko nahia betearazi diola gaineratu du, etorkizunean "nere kabuz entseatzeko asmoa dut".  
+ [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)



<p><b>ARTE-AN</b> AZAROAK 16 · 20:00 DANTZA IKUSKIZUNA</p> <p>948564272 · <a href="mailto:iorlia@altsasu.net">iorlia@altsasu.net</a> · <a href="http://www.iorliakultura.com">www.iorliakultura.com</a></p>	<p><b>ARTE DEKORATZAILEAK</b> YOLANDA ARNEDOREN TAILERRA AZAROAK 12-29 ERAKUSKETA</p>	<p><b>AVIONES</b> 3€</p> <p>IGANDEA 17 17:00</p>	<p><b>YO, TAMBIÉN</b> 5€</p> <p>OSTIRALA 15 21:45 IGANDEA 17 20:00</p>	<p><b>MUD</b> 5€</p> <p>OSTIRALA 15 22:00 IGANDEA 17 20:10</p>
---	---	--	--	--



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 98%	euria: 74%	euria: 45%	euria: 78%	euria: 97%	euria: 93%	euria: 93%
Min: 5 Max: 6	Min: 2 Max: 5	Min: 4 Max: 7	Min: 5 Max: 9	Min: 5 Max: 6	Min: 2 Max: 5	Min: 2 Max: 6

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	19.5	2.5	50.4
Altsasu	18	2.5	56.1
Aralar	12.1	1	101.1
Urbasa	16	0	82

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
17	25	3	9

Acrylicolor

SISTEMA BERRIA

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253  
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI  
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

2014ko bilduma

Emakumezko eta gizonezko

# modeloak behar dira

Azaroaren 20tik aurrera, etorri hona!!!

Modeloa izan nahi duenak, argazki bat ekar dezala.

nueva imagen  
ileapaindegia

San Juan 54 Altsasu - 948 467 074  
estilistasnuevaimagen@hotmail.com



# 2014ko egutegiaren eskaintza mundiala irailean

mahai egutegiak

100	200 €
200	250 €
500	390 €

kolorez, 300 g papera, A4, piramide formen tolestua (210x100 mm)

boltsiko egutegiak

100	57 €
200	63 €
500	97 €

kolorez, 300 g papera, B4 x 55 mm plastifikatzea: +30 €

bi orrikoak

100	70 €
200	85 €
500	130 €

kolorez, 300 g papera, B4 x 110 mm, ordira tolestua plastifikatzea: +30 €

horma egutegiak

100	156 €
300	328 €
600	586 €

Posterra personalizatua, kolorez, 330 x 370 mm. Feldoia elcibiduna, bi kolorez.

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
argi@guaixe.net

# >> 11 galdera

## Mertxe Úbeda Nueva Imagen ileapaindegia

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

**1. Asteburuan Londonen egon zara. Zertan?**  
Modan dauden teknika guztiei aurreratzeko asmoz jo dugu Londonera, ikusi eta ikasitakoa gero gure ileapaindegian aplikatzeko.

**2. Zer egiten duzue ikastaro horietan?**  
2014rako ileapaindegirako mozketak eta kolore linea berriak lantzen

ditugu.

**3. Ikastaroa zein motatako profesionalek ematen dute?**  
Munduan barna kolektzioak prestatzen dituzten profesionalek. Hainbat nazionalitatekoak diren baina Londonen bizi diren profesional anitzak dira: italiarrak, argentinarrak, greziarrak ...

**4. Nola dago antolatuta?**  
Bi bezero ezberdinetarako pentsatua dagoen moda sortzen da: hiri-moda eta abangoardia-moda.

**5. Zein ezberdintasun dute hiri-modak eta abangoardia-modak?**  
Hiriko moda bezero guztiei egokitu daiteke. Aldiz, abangoardia-moda bezero gazteenei eta animatuenei zuzendua dago gehiago.

**6. Zenbat denbora daramazue Londonera joaten?**  
20 urte inguru, bi edo hiru urte-en tartearekin.

**7. Zergatik Londonera eta ez beste tokiren batera?**  
London hiri handia delako, kultura, arraza eta estilo aniztasun askorekin.

**8. Han ikasitakoa nola aplikatzen duzue zuenean?**

Gure zentroan teknika guztiak aplikatzen ditugu, baina bezero bakoitzari pertsonalizatutako lan suabe eta harmoniatsua sortzen ditugu. Baina badira abangoardia gehiago eskatzen diguten bezero ausartak ere.

**9. Sakanan ausartak gara?**  
Bai, baina kalean ile mozketak eta look ausartak ikustea behar dugu, gero gu animatzeko.

**10. Eskuartean ekimen berri bat duzue. Kontaiguztu ...**  
Modelo unisexak behar ditugu, hau da, neskek eta mutilak, gure eskutan jartzeko prest daudenak. Trukean, fantasiako kolore ausartenekin eta puntako ile mozketekin eraldatu nahi ditugu, doan. Abangoardiako moda sustatu nahi dugu.

**11. Noiz da hitzordua?**  
Azaroaren 20tik aurrera Altsasuko Nueva Imagen Ileapaindegian. Aldaketa erradikal bat egin nahi duten guztiak espero ditugu. Eskerrik asko animatzen diren guztiei!

guaiyekomunikazioa.blogspot.com

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

Komunikazio zerbitzua, euskaraz eta gertu